



Cod.Expediente:
2022UDAL0007

SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

UDALBATZAREN AKTA

2022KO ABENDUAREN 21EKO EZOHICO SAIOA

Soraluzeko herrian, bi mila eta hogeita biko abenduaren 21ean, 19:00 orduak izanik eta aurrez deialdia delarik, Udaletxeko Udalbatza aretoan Patricia Borinaga Albeniz, Veronica Galarraga Izagirre eta Iñaki Rubio Torrientes, Alkateorde jaun-andreak eta Ramon Gallastegi Aldazabal, Abel Olaizola Alberdi, Unai Larreategi Azurmendi, Ana Rosa Maiztegui Gorostidi, Roke Akizu Aizpiri, Jone Alberdi Alvarez eta Maite Quintanilla Lete zinegotzi jaun-andreak, Iker Aldazabal Basauri Alkate jaunaren Lehendakari zapean elkartu dira, lehenengo deialdiz eta behin behineko Idazkari lanetan Itziar Sagastagoia Zabala andrea arituz.

1.- 2022KO AZAROAREN 30EKO SAIOAREN AKTA ONARTZEA.-

Aho batez onartu da 2022ko azaroaren 30eko udalbatza akta.

2.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.-

Azaroaren 18ko 205/2022 zenbakidun dekretutik abenduaren 13ko 220/2022 zenbakidun dekretu arteko Alkatezta dekretuen berri jaso du Udalbatzak.

3.- UDALAREN LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA.-

Lanpostuen Zerrendaren aldaketa honek hurrengo helburua du:

1.- Etxez etxeko laguntzaile lanpostu bat amortizatzea.

2.- Udal honetako etxez etxeko laguntzaileen lanaldia luzatzea % 78,57tik %100era, datorren urtariletik aurrera.

Ikusita Pertsonal Batzordeak 2022ko azaroaren 14ean emandako aldeko irizpena, erabakia osoko bilkuraren

ACTA DEL PLENO

SESIÓN EXTRAORDINARIA DE 21 DE DICIEMBRE DE 2022

En la localidad de Soraluze, siendo las 19:00 horas del día 21 de diciembre de dos mil veintidós, previa convocatoria, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento las señoras y los señores Patricia Borinaga Albeniz, Verónica Galarraga Izagirre e Iñaki Rubio Torrientes, Tenientes de Alcalde, y Ramón Gallastegi Aldazabal, Abel Olaizola Alberdi, Unai Larreategi Azurmendi, Ana Rosa Maiztegui Gorostidi, Roke Akizu Aizpiri Jone Alberdi Álvarez y Maite Quintanilla Lete concejales, se reúnen bajo la presidencia del Alcalde D. Iker Aldazabal Basauri, en primera convocatoria, actuando como Secretaria accidental Dña. Itziar Sagastagoia Zabala.

1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN DE FECHA 30 DE NOVIEMBRE DE 2022.-

Se aprueba por unanimidad el acta del Pleno de 30 de noviembre de 2022.

2.- DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.-

Se da cuenta al Pleno de los decretos comprendidos entre el decreto de Alcaldía número 205/2022, de 18 de noviembre, y el número 220/2022, de 13 de diciembre.

3.- MODIFICACIÓN DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO DEL AYUNTAMIENTO.-

Mediante la presente modificación de la RPT se pretende:

1.- Amortizar un puesto de trabajo de auxiliar domiciliaria/o.

2.- Ampliar la jornada de las Auxiliares Domiciliarias de este Ayuntamiento de un 78,57%, pasando a ser del 100%, a partir del próximo enero.

Visto el dictamen favorable de la Comisión de personal de fecha de 14 de noviembre de 2022 de sometimiento del

onespenaren mende jartzekoa.

Espedientea osatzen duten aurretiazko izapide guztiak eginda, langileen ordezkariekin negoziatzea barne.

Udal Batzarrak aho batez ERABAKITZEN DU:

Lehena: Etxez etxeko laguntzaile lanpostu bat amortizatzea.

Bigarrena: Udal honetako etxez etxeko laguntzaileen lanaldia luzatzea % 78,57tik %100era, datorren urtariletik aurrera.

Hirugarrena: Ondorioz, 2022. urteko Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onartzea.

Laugarrena: Langileei akordioa jakinarazi.

Bosgarrena: Lanpostuen Zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4.- 2023. URTERAKO AURREKONTUA.-

Alkateak hitza hartzen du 2023ko aurrekontuaren ezaugarriak deskribatzeko:

2023ko aurrekontuaren zenbatekoa 4.976.000€tako da. Aurreko urteko (5.599.504€) aurrekontuarekin alderatuz 623.504€ gutxiago. % 11,13 Gutxiago

Arrazoa GARRANTZITSUENA; aurreko urtean, udalak 500.000€tako prestamo eskatu zuela aurrekontu proiektuan aurreikusitako inbertsioak finantzatzeko. Aurten ez da prestamori eskatuko.

Udal langileei dagokionean %3,5 ko igoera aurreikusten da.

Azken hilabeteetan burutu diren batzorde desberdinetan, batzordeetako aurrekontuen berri eman da eta guztiak

acuerdo a aprobación por el Pleno.

Realizados todos los trámites previos que forman parte del expediente, incluida la negociación con la representación del personal.

La Corporación Municipal, por unanimidad, ACUERDA:

Primero: Amortizar un puesto de trabajo de auxiliar domiciliaria/o.

Segundo: Ampliar la jornada de las Auxiliares Domiciliarias de este Ayuntamiento de un 78,57%, pasando a ser del 100%, a partir del próximo enero.

Tercero: Aprobar la consiguiente modificación de la Relación de Puestos de Trabajo para el año 2022.

Cuarto: Notificar el presente acuerdo a las trabajadoras.

Quinto: Publicar la Relación de Puestos de Trabajo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

4.- PRESUPUESTO PARA EL EJERCICIO DE 2023.-

El Sr. Alcalde toma la palabra para señalar las características generales del presupuesto 2023:

El presupuesto para 2023 asciende a 4.976.000 €. Respecto al presupuesto del año anterior (5.599.504 €) 623.504 € menos, 11,13% menos.

MOTIVO MÁS IMPORTANTE: el año anterior el Ayuntamiento solicitó 500.000€ de prestamos para financiar las inversiones previstas en el proyecto de presupuestos. Este año no se pedirán prestamos.

En cuanto al personal municipal se prevé un incremento del 3,5%.

En las diferentes comisiones que se han llevado a cabo en los últimos meses se ha informado de los presupuestos de las



Cod.Expediente:
2022UDAL0007

SORALUZKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

txertatu dira aurrekontu proiektuan.

Inbertsioei dagokionean aurten zenbatekoa 125.500€takoa izango da. Udalaren sarrera eta gastuak alderatuz 245.654€tako aurrezki gelditzen zaigu eta honi 124.154€ kendu behar zaizkio udalak eskatuta dituen prestamoen amortizazioengatik.

Ikus daiteke inbertsioetarako zenbatekoa ez dela handia. Ondoren zerrendatuko ditudan inbertsioak diru kopuru honekin ezin daitezke finantziatu. Baina gogorarazi nahi dut, aurreko urteetan egin den bezala martxoan, 2022ko likidazioaren zenbatekoa dakigunean aktibatuko ditugula.

Bestalde ondorengo azpimarratzea nahiko nuke. Udal gobernu honek duen kudeaketarako gaitasuna. Hau da udalaz gaindiko erakundeekin hitz egin eta herriarentzat baliabideak lortzeko. Hauei esker inbertsioak burutu eta beharrei aurre egin.

Hauek izan dira orain arte Lortutako dirulaguntza garrantzitsuenak:

- Eozibidea berritzen 2022-2025: 5.841.000€ (Eusko Jaurlaritza)
- Enplegarritasun laguntza. Debabarrena berritzen. Gai ordenaren 12.puntuan jasotzen den hitzarmena.. 484.913€ (Eusko Jaurlaritza)
- Elkar-Ekin 2022. Debabarrena. Lantegi eskola martxan jartzeko: 593.397€ (Aldundia)
- SAPA Birgaitzeko: 700.00€ (Aldundia)
- Kalebarren 8ko lokala egokitzeko: 341.000€ (Aldundia)
- Pascual Churruca. Alokairu sozialeko 29 etxebizitza egiteko.3.500.000€ (Eusko Jaurlaritza)
- 2.250 zuhaitz landatzeko 47.000€ (Aldundia)
- Debabarreneko ponentzia....
- Gabolatseko zubi berria...

comisiones y se han incorporado todas ellas al proyecto de presupuestos.

En cuanto a las inversiones, este año el importe será de 125.500 €. En relación con los ingresos y gastos del Ayuntamiento, nos queda un ahorro de 245.654 €, al que hay que deducir 124.154 €por las amortizaciones de los prestamos solicitados por el Ayuntamiento.

Se observa que la cuantía para las inversiones no es elevada. Las inversiones que enumeraré a continuación no pueden financiarse con esta cantidad de dinero. Pero quiero recordar que, como se ha hecho en años anteriores en marzo, las activaremos cuando sepamos el importe de la liquidación de 2022.

Por otra parte, me gustaría destacar lo siguiente, la capacidad de gestión de este gobierno municipal. Esta capacidad de gestión para hablar con entidades supramunicipales y conseguir recursos para el pueblo. Gracias a ellos se pueden realizar inversiones y hacer frente a las necesidades.

Estas han sido las subvenciones más importantes obtenidas hasta el momento:

- Eozibidea berritzen 2022-2025: 5.841.000 € (Gobierno Vasco)
- Apoyo a la empleabilidad. Debabarrena berritzen. Convenio recogido en el punto 12 del orden del día. 484.913 €(Gobierno Vasco)
- Elkar-Ekin 2022. Debabarrena. Para la puesta en marcha de la escuela taller: 593.397 €(Diputación)
- SAPA Rehabilitación: 700.00 € (Diputación)
- Acondicionamiento local Kalebarren 8: 341.000 €(Diputación)
- Pascual Churruca. 29 viviendas de alquiler social. 3.500.000€ (Gobierno Vasco)
- 47.000€ para plantación de 2.250 árboles (Diputación)
- Ponencia de Debabarrena.
- El nuevo puente de Gabolats

Total 11.507.310 €

Guztira 11.507.310€

Alkate jn.ak Ana Rosa Maiztegui gogorarazten dio nola hark legealdi hasieran esaten zuen udalez gaindiko erakundeen aurrean kudeaketa lanak egin behar zirela herriaren onurarako funtsak lortzeko. Eta horra hor hiru urteko kudeaketaren ondoren udal gobernuaren lorpenak.

Inbertsio zerrendari dagokionean hauek dira garrantzitsuenak:

- Etxaburuetako Ur txorreen parkea burutzeko.
- Eraisketa lanetarako. (Kalebarren 24)
- Kiroldetik aldagela berriak eta Skate gunea eta padel pistaren estalpea.
- Asfaltado lanak.
- Itxaropena. Irigarritasun proiektua.
- Gabolatseko zubi berria.
- Debabarreneko ponentzia.
- Argiteria instalazioak
- Hirigintzako Lanen idazketa.
- Eguzki panelak
- Gaztelekuko mobiliarioa
- Jubilatutako etxeko inbertsioak
- Musika eskolako inbertsioak
- Haurreskolako inbertsioak
- Kultur inbertsioak
- Lur sailen erosketak
- Bizikidetzaren proiektua
- Gizarte ongizateko inbertsioak
- Nekazaritzako inbertsioak

Arestian aipatu bezala inbertsioa hauek martxan ipiniko ditugu 2022ko likidazioaren zenbatekoa dakigunean. Aipaturiko inbertsioen berri batzorde desberdinetan jakinarazi da eta denok dakizkigu zeintzuk diren.

EHBILDUK ere egin dizkio ekarpenak aurrekontu proiektuari, eta txertatuak izan dira.

Aurkeztutako aurrekontuaren proiektuak, segidan bototara jarriko denak, ondorengo kapituluko laburpena dauka:

El Sr. Alcalde recuerda a Ana Rosa Maiztegui cómo ésta decía al inicio de la legislatura que era necesario realizar labores de gestión ante entidades supramunicipales para obtener fondos en beneficio del pueblo. Y he ahí los logros del gobierno municipal tras tres años de gestión.

En cuanto a la lista de inversiones, las más importantes son:

- Ejecución del parque de chorros en Etxaburueta.
- Demolición. (Kalebarren 24)
- Los nuevos vestuarios del polideportivo y la cubrición de la zona de skate y pista de padel.
- Trabajos de asfaltado.
- Itxaropena. Proyecto de accesibilidad.
- Puente nuevo de Gabolats.
- Ponencia de Debabarrena.
- Instalaciones de alumbrado.
- Redacción de trabajos de Urbanismo.
- Paneles solares
- Mobiliario del Gazteleku
- Inversiones del hogar del jubilado
- Inversiones en la escuela de música
- Inversiones en Haurreskola
- Inversiones culturales
- Compras de terrenos
- Proyecto de convivencia
- Inversiones en bienestar social
- Inversiones agrícolas

Como se ha mencionado anteriormente, pondremos en marcha estas inversiones cuando se conozca el importe de la liquidación de 2022. De las citadas inversiones se ha dado cuenta en las diferentes comisiones y todos sabemos cuáles son.

También EHBILDU ha realizado aportaciones al proyecto de presupuestos, que han sido incorporadas.

El proyecto del presupuesto presentado, que se somete a votación seguidamente, contempla el siguiente resumen por capítulos:



Cod.Expediente:
2022UDAL0007

SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

KAP. CAP.	SARREREN AURREKONTUA PRESUPUESTO DE INGRESOS	€
1	Zuzeneko zergak – <i>Impuestos directos</i>	787.100,00
2	Zeharkako zergak – <i>Impuestos indirectos</i>	20.000,00
3	Tasa eta bestelako sarrerak – <i>Tasas y otros ingresos</i>	706.950,00
4	Transferentzia arruntak – <i>Transferencias corrientes</i>	3.444.450,00
5	Ondare sarrerak – <i>Ingresos patrimoniales</i>	7.500,00
6	Inbertsio errealak inorenganatzea – <i>Enajenac. inversiones reales</i>	-
7	Kapital transferentziak – <i>Transferencias de capital</i>	10.000,00
8	Finantza aktiboak – <i>Activos financieros</i>	-
9	Finantza pasiboak – <i>Pasivos financieros</i>	0,00
SARRERAK GUZTIRA – TOTAL INGRESOS		4.976.000,00

KAP. CAP.	GASTUEN AURREKONTUA PRESUPUESTO DE GASTOS	€
1	Personal gastuak – <i>Gastos del personal</i>	1.588.869,00
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerb. – <i>Gastos bienes cor. y servic.</i>	2.615.482,00
3	Finantza gastuak – <i>Gastos financieros</i>	14.000,00
4	Transferentzia arruntak – <i>Transferencias corrientes</i>	501.995,00
6	Inbertsio errealak – <i>Inversiones reales</i>	125.500,00
7	Kapital transferentziak – <i>Transferencias de capital</i>	6.000,00
8	Finantza aktiboak – <i>Activos financieros</i>	-
9	Finantza pasiboak – <i>Pasivos financieros</i>	124.154,00
GASTUAK GUZTIRA – TOTAL GASTOS		4.976.000,00

Bototara jarririk, gehiengoz erabakitzen da, EAJ/PNVko (lau) eta PSE-EEko (bi) Batzarkideei dagozkien aldeko sei botoz eta EHBILDUKO Batzarkideei dagozkien bost abstentzioz, 2023ko ekitaldiko aurrekontua **onartzea**.

Unai Larreategi zinegotziak adierazi du botoa ematerakoan aurrekontuei erreparatuko diela eta ez legegintzaldian zehar sortutako gaiei. Esan du agian Alkateak bere azalpenarekin aurrekontutik fokua desbideratu nahi izan duela eta errespetu guztiarekin nahaste-borrastea iruditu zaiola.

Jarraian Udal gobernuak aurkeztutako aurrekontuen aurrean EH-BILDUK emandako bozkaren arrazoia azaldu du:

laz ondoko irakurketa egin genuen 2022ko aurrekontuen eztabaidan: "Aurten ere azken urteetako egoera berdinarekin

Sometido a votación, se acuerda por mayoría de seis votos a favor, correspondientes a Corporativos de EAJ/PNV (cuatro) y PSE-EE (dos), y cinco abstenciones, correspondientes a los corporativos de EHBILDU, **aprobar** el presupuesto para el ejercicio de 2023.

El concejal Unai Larreategi manifiesta que a la hora de dar la explicación de voto se va a centrar en los presupuestos y no en los diferentes temas surgidos a lo largo de la legislatura. Comenta que quizás el Alcalde con su intervención ha querido desviar el foco del presupuesto y que con todo el respeto le ha parecido confusa.

Seguidamente expone el motivo de la votación de EH-BILDU ante los presupuestos presentados por el Gobierno Municipal:

El año pasado hicimos la siguiente lectura en el debate de presupuestos de 2022. "Este año también nos hemos

aurrean aurkitu gara aurrekontuak osatzeko orduan. Ohiko gastuak inkorporatuta apenas gelditzen da dirurik inbertsioetarako. Urteak daramatzagu errepikatu eta errepikatu badela garaia gertatzen ari zaiguna aztertu eta hartu beharreko neurriak hartzeko. Arazo estruktural bat daukagu, ondorioz ez da inertzia hutsez konponduko. Askotan agertu izan dugu gure prestutasuna ariketa konpleju horretan laguntzeko. Agintaldiko azken urtean ez dakigu gaiari heltzeko borondaterik izango duzuen udal gobernutik baina EHBildun argi daukagu dugu urtebete barru izango diren udal hauteskundeen ostean egingo dugun lehen lana horixe izango dala. Soraluzek dituen beharren, lehenetsuen arabera errekurtsoen goitik beherako berrantolaketa bat."

Aurreikusten genuen bezala aurten ere ez da tankera honetako ariketa ekonomikorik egin, ondorioz justuan heltzen da dirua ohiko gastuei aurre egiteko eta inbertsioetarako ez dago dirurik. Ez da faktore bakarra izan baina azken bi agintalditako gestio ereduak ere izan du horretan zeresana. Askotan egin dugu honetaz berba baina ez da borondate politikorik egon egoera hau aldatzen ahalegintzeko, hortxe egon zarete komodo itxuraz edo ez duzue jakin izan egoera iraultzen. Fondo foraletik jasotzen denaren geroz eta dependienteagoak gara: 2015ean diru-sarrerren %58,2a ziren fondo foraletik zetoztenak eta aurtengoan %64,8a dira. Beraz geroz eta kapazitate gutxiago daukagu herri moduan beharrezko errekurtsoak generatzeko, kanpo subentzioen menpekoagoak bihurtzen ari gara. Etenik ez duen pobretze dinamika baten sartuta gaude alegia. Ez da erreza izango baina EHBilduko zinegotziok iaz hartutako konpromisoa berresten dugu: agintaldi berriarekin batera egingo dugun lehen ariketa ekonomiari loturikoa izango da. Ariketa transparentea eta partehartzailea izango da. Egoera irauli beharra dago.

encontrado con la misma situación que en los últimos años a la hora de elaborar los presupuestos. Con los gastos corrientes incorporados apenas queda dinero para las inversiones. Llevamos años repitiendo y repitiendo que ya es hora de analizar lo que nos está pasando y tomar las medidas que tengamos que tomar. Tenemos un problema estructural, por lo que no se resolverá por simple inercia. En muchas ocasiones hemos mostrado nuestra disposición a colaborar en ese ejercicio complejo. En el último año de mandato no sabemos si tendréis voluntad de abordar el tema desde el gobierno municipal, pero en EHBildu tenemos claro que este será el primer trabajo que hagamos tras las elecciones municipales que se celebrarán dentro de un año. Una reordenación integral de los recursos en función de las necesidades, prioridades de Soraluze."

Tal y como preveíamos, este año tampoco se han realizado ejercicios económicos de este tipo, por lo que llega el dinero justo para hacer frente a los gastos habituales y no hay dinero para las inversiones. No ha sido el único factor, pero el modelo de gestión de los dos últimos mandatos también ha tenido que ver en ello. Hemos hablado muchas veces de esto, pero no ha habido voluntad política para intentar cambiar esta situación, habéis estado ahí en cómoda apariencia o no habéis sabido revertirla. Cada vez somos más dependientes de lo que se recibe del fondo foral: en 2015, los procedentes del fondo foral, representaban el 58,2% de los ingresos y este año representan el 64,8%. Así que cada vez tenemos menos capacidad como pueblo para generar los recursos necesarios, nos estamos haciendo más dependientes de las subvenciones externas. Estamos inmersos en una dinámica de empobrecimiento que no cesa. No será fácil pero los concejales de EHBildu reafirmamos el compromiso adquirido el año pasado: «El primer ejercicio que hagamos con el nuevo mandato será el vinculado a la economía. El ejercicio será transparente y participativo. Hay que revertir la situación.



Cod.Expediente:
2022UDAL0007

SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

Aurrekontu zein inbertsio zerrendan zentratuz gehikuntza bakarria proposatu diogu aurtengo aurrekontuari: herriko etxebizitza parkearen egoera eta herritarren beharrak aztertzeko proiektua garatzea. Dimentsio erreala hartu nahi diogu herritarrak transmititzen dizkiguten hainbat behari: alokairuan etxe bat hartzeko edota irisgarritasun egokia duenen bat aurkitzeko zailtasun handiak daudela herrian, etxebizitza parkea zahartzen ari dela eta berriro erosteko aukerarik ez dagoela herrian, etxe-hutsen kopuru handia daukagula baina asko ez daudela merkatura ateratzeko moduan... Datu zehatzak esku artean izateak lagunduko liguke etxebizitza politika egoki bat garatzeko datozen urteetarako.

Centrándonos tanto en el presupuesto como en la lista de inversiones, hemos propuesto un único incremento al presupuesto de este año: desarrollar un proyecto para analizar la situación del parque de viviendas de la localidad y las necesidades de la ciudadanía. Queremos dar una dimensión real a las diferentes necesidades que nos transmiten los ciudadanos: que hay muchas dificultades en el pueblo para coger una casa en alquiler o encontrar una accesibilidad adecuada, que el parque de viviendas envejece y que no hay posibilidad de comprar nada nuevo en el pueblo, que tenemos un número importante de pisos vacíos pero que muchos no están en condiciones de salir al mercado. Tener datos concretos entre manos nos ayudaría a desarrollar una política de vivienda adecuada para los próximos años.

Proposamen gehiago ere sartuko genituzke baina inbertsiotarako dirurik ez dagoenez ariketa irreal izango litzateke berau. Azken urteetatik pendiente ditugun proiektuak martxan jarri ta ejekutatzeari emango diogu lehentasuna. Olaldeako gunearen eraldaketa urbanistikoa zein Olabarrenako zubi berria Debabarrenako ponentziaren eskutik, "U" gaina estaltzea... ea lortzen dugun 2023an zehar berauek desataskatzea.

Introduciríamos más propuestas, pero como no hay dinero para las inversiones sería un ejercicio irreal. Priorizaremos la puesta en marcha y ejecución de los proyectos pendientes de los últimos años, tanto la transformación urbanística del núcleo de Olalde como el nuevo puente de Olabarrena de la mano de la ponencia de Debabarrena, la cubrición de la U... a ver si conseguimos desatascarlos a lo largo de 2023.

Esandako guztiarekin oso arduratuta egonagatik abstenitzea erabaki dugu. Kontra bozkatzeko argumentu nahikoa izan arren azken urteetan egin dugun moduan modu eraikitzaile eta positiboan bukatu nahi dugu agintaldia. Herriaren azken urteetako bilakaerarekin kezka dauden herritarrei ere transmititu nahi genieke egoera okerra izanagatik Soraluze bizigarriago bat eraikitzea posible dela. Hauteskundeak gertu izanagatik alderdi politiko zein herritarrak alkarrekin lan egiteko garaiak datoz Soraluzera. Ilusioa eta herri-gogoa pizteak izan behar du guztion lehentasun eta EHBildutik horren alde egingo dugu lan aurrerantzean ere.

Hemos decidido abstenernos por estar muy preocupados por todo lo dicho. A pesar de contar con argumentos suficientes para votar en contra, queremos terminar el mandato de forma constructiva y positiva como lo hemos hecho en los últimos años. También quisiéramos transmitir a los ciudadanos preocupados por la evolución del pueblo en los últimos años que, a pesar de la situación, es posible construir un Soraluze más habitable. Dada la cercanía de las elecciones llegan a Soraluze tiempos en los que se trabaja con partidos políticos y ciudadanos. Despertar la ilusión y las ganas de país debe ser la prioridad de todos y desde EHBildu seguiremos trabajando por ello.

Patricia Borinaga zinegotziak hartu du

La concejala Patricia Borinaga toma la

hitza, eta, hasteko, eskertu egin du teknikariek aurrekontua egiteko egindako lana, bai eta EH BILDU taldeak egindakoa ere, bateratze-jarreragatik eta aurrekontuaren aurkako botorik ez emateagatik, kontuan hartuta, gainera, hauteskundeak daudela eta legegintzaldiko azken aurrekontua garrantzitsua dela.

Ondoren, esan du alderdi politiko bakoitzak bere aurrekontua duela, baina jarrerak bateratzen saiatzen direla, eta, gauden eta abiapuntu dugun egoera ikusita, aurrekontuen artean onena dela.

Denok dakigu zein den udalaren gaitasuna zerga-ordenantzen bidezko diru-bilketatik datozen baliabide propioak lortzeko, eta, aldi berean, kontziente gara udal-zerbitzuek eragiten duten gastuaz.

Aurrekontu horretan ez dira zerbitzuak murrizten, eta kasu batzuetan pandemia garaian eman ez zirenak berreskuratzen dira, hala nola gaztelekua berriz irekitzea, eta, halaber, jarduketa berrietarako partidak sortzen dira, hala nola 6.000 €-ko partida haur eta nerabeen kontseiluak sortzeko.

Murrizketarik gabeko aurrekontua da, eta ez zeuden baliabideak ezartzen ditu, guztiak oposizioarekin planteatuta eta adostuta, eta gastu arrunta handitzen dute. Eta hori guztia, gainera, Udalari ere eragin dion inflazioaren igoerari aurre eginez. Bada, zerbitzu horiek berreskuratu egin dira. Halaber, denok jabetu behar dugu langileen kostuaz. Gastu hori hor dago, eta urtez urte handitzen ari da, hitzarmenak, dekretuak eta abar bete behar direlako. Aurrekontuaren zati handi bat konprometituta dago ezer egiten hasi aurretik, eta gobernu-taldearen erabakitik kanpo dauden faktoreen menpe dago.

Inbertsioen kapituluari dagokionez, Soraluek ez du ahalmenik udalaz

palabra y comienza agradeciendo el trabajo realizado por los técnicos en la elaboración del presupuesto, así como al grupo EH BILDU por su actitud conciliadora y por no haber votado en contra del presupuesto, teniendo en cuenta además que hay elecciones y que el último presupuesto de la legislatura es importante.

Continúa diciendo que cada partido político tiene su presupuesto pero que se intenta conciliar posturas y, viendo la coyuntura en la que nos encontramos y de la que partimos, es el mejor de los presupuestos.

Todos somos conscientes de la capacidad que tiene el ayuntamiento de obtener recursos propios que provienen de la recaudación vía ordenanzas fiscales, al tiempo que también somos conscientes del gasto que suponen los servicios municipales.

En este presupuesto no se recortan servicios y en algunos casos se recuperan los que se dejaron de prestar en época de pandemia, como la reapertura del gazteleku, creando asimismo partidas para nuevas actuaciones como lo es la partida 6.000 € para la creación de los consejos de infancia y juventud.

Se trata de un presupuesto sin recortes que implementa recursos que no existían, todos ellos planteados y consensuados con la oposición y que aumentan el gasto corriente. Y todo ello además lidiando con el aumento de la inflación que ha afectado también al Ayuntamiento. Servicios pues que han sido recuperados y todos tenemos que ser conscientes del coste de personal. Este es un gasto que está ahí y que año tras año se va aumentando porque hay que cumplir convenios, decretos, etc.. Parte muy grande del presupuesto está comprometido antes de empezar a hacer nada y dependen de factores que se escapa de la decisión del equipo de gobierno.

En cuanto al capítulo de inversiones, Soralue no tiene capacidad para llevar



Cod.Expediente:
2022UDAL0007

SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

gaindiko finantzaketarik gabeko jarduerak egiteko. Egungo errealitateaz jabetu behar dugu. Onartzeko aurkeztu den aurrekontua ez da bere taldeak planteatuko zukeen aurrekontua, ezta EAJ-PNV taldeak planteatuko lukeena ere. Hala ere, aurkeztu ahal izango luketen aurrekonturik onena da, eta, gainera adostutakoa eta hauteskunderen ondoren gaiak eta jarduerak adosten jarraitzea espero du. Beste erakundeei eskerrak eman dizkie emandako babesagatik, eta gaineratu du atea jotzen jarraitu behar dela eta emaitzak jasotzen jarraitzea espero duela. Ere bai espero du Debabarrenaren ponentziak Soraluze eragina izatea, zinegotzia baiezkoan dago Soraluzek premia handia baitu. Eta horretarako adostasuna beharrezkoa da.

5.- 2023. URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA.-

Udal Batzarrak aho batez **ERABAKITZEN DU:**

BAT: Hasierako onespina ematea 2023. urterako plantilla organikoari.

BI: Espedientea jendurrean jartzea hamabost laneguneko epez, erreklamazioak jaso ahal izateko.

HIRU: Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akordio hau behin betikotzat hartuko da. Erreklamazioak egonez gero, Plenoak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko.

LAU: Behin betiko erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta ale bat Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea.

6.- 2023. URTERAKO AURREKONTUAREN EXEKUZIOA ARAUA.-

Udal Batzarrak aho batez erabakitzen du, 2023. urterako Aurrekontuaren Exekuzio-Araua **onartzea**.

7.- LANBIDEK, ENPLEGUA ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEKO ZERBITZUAK, ENPLEGUA ETA TOKIKO GARAPENA

a cabo actuaciones sin financiación supramunicipal. Hay que ser conscientes de la realidad existente. El presupuesto que se presenta a aprobación no es el presupuesto que hubiera planteado su grupo y seguramente tampoco el que hubiera planteado el grupo EAJ-PNV. Sin embargo, es el mejor presupuesto que hubieran podido presentar y encima consensuado y espera que tras las elecciones puedan seguir consensuando temas y actuaciones. Agradece a las otras instituciones su apoyo y añade que hay que seguir tocando puertas y espera que nos sigan haciendo caso y que la ponencia de Debabarrena tenga su efecto en Soraluze, que cree que lo tendrá ya que tiene mucha necesidad. Y para ello el consenso es necesario.

5.- PLANTILLA ORGANICA PARA EL AÑO 2023.-

La Corporación Municipal, por unanimidad, **ACUERDA:**

UNO: Aprobar inicialmente la plantilla orgánica para el año 2023.

DOS: Exponer el expediente al público durante quince días hábiles, a los efectos de reclamaciones.

TRES: Considerar este acuerdo como definitivo si no hubiera reclamaciones. En caso contrario, el Pleno dispondrá del plazo de un mes para resolverlas.

CUATRO: Publicar el acuerdo definitivo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y remitir copia a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

6.- NORMA DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA PARA EL AÑO 2023.-

La Corporación Municipal acuerda por unanimidad, **aprobar** la Norma de Ejecución Presupuestaria para el año 2023.

7.- CONVENIO DE ENCOMIENDA DE GESTIÓN ENTRE LOS AYUNTAMIENTOS DE ELGOIBAR, SORALUZE, MENDARO, DEBA Y

SUSTATZEKO DIRUZ LAGUNTZEN DITUEN PROIEKTUAK EXEKUTATZEKO, ELGOIBARKO, SORALUZECO, MENDAROKO, DEBAKO ETA MUTRIKUKO UDALEN ARTEAN EGITEN DEN GESTIOA DEBABARRENEKO LURRALDE EREMUAREN ESKU UZTEKO HITZARMENA.-

Udal Batzarrak aho batez ERABAKITZEN DU:

BAT: Enplegua eta tokiko garapena sustatzeko proiektuak gauzatzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz laguntzen dituenak, Elgoibarko, Eibarko, Sorluze, Mendaroko, Debako eta Mutrikuko Udalaren artean burutzen den gestioa Debabarreneko lurralde eremuaren esku uzteko hitzarmena onartzea.

BI: Alkatea ahalduntzea hitzarmena eta berau indarrean sartzeko beharrezko diren agiriak sinatzeko.

HIRU: Akordioaren jakinarazpena egitea.

LANBIDEK, ENPLEGUA ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEKO ZERBITZUAK, ENPLEGUA ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEKO DIRUZ LAGUNTZEN DITUEN PROIEKTUAK EXEKUTATZEKO, ELGOIBARKO, SORALUZECO, MENDAROKO, DEBAKO ETA MUTRIKUKO UDALEN ARTEAN EGITEN DEN GESTIOA DEBABARRENEKO LURRALDE EREMUAREN ESKU UZTEKO HITZARMENA

BILDU DIRA

Alde batetik, ANE BEITIA ARRIOLA ANDREA, Elgoibarko Udaleko Alkate-Lehendakaria eta Elgoibarko Udalaren lege-ordezkaria, ----- Udalbatzarraren Osoko Bilkurak hartu zuen akordioaren bitartez, egintza honetarako berariaz baimenduta dagoena.

Eta beste alde batetik, IKER ALDAZABAL BASAURI JAUNA, Sorluze Udaleko Alkate-Lehendakaria eta Sorluze Udalen lege-ordezkaria, ----- Udalbatzarraren Osoko Bilkurak hartu zuen akordioaren bitartez, egintza honetarako berariaz baimenduta dagoena.

Eta beste alde batetik, IÑAKI ARREGUI URIA JAUNA, Mendaroko Udaleko Alkate-Lehendakaria eta Mendaroko Udalaren lege-

MUTRIKU PARA LA EJECUCIÓN DE LOS PROYECTOS DE IMPULSO DEL EMPLEO Y DESARROLLO LOCAL SUBVENCIONADOS POR LANBIDE-SERVICIO VASCO DE EMPLEO, AL ÁMBITO TERRITORIAL DE DEBABARRENA.-

La Corporación Municipal por unanimidad ACUERDA:

UNO: Aprobar el Convenio de encomienda de gestión entre los Ayuntamientos de Elgoibar, Sorluze, Mendaro, Deba y Mutriku para la ejecución de los proyectos de impulso del empleo y desarrollo local subvencionados por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, al ámbito territorial de Debabarrena.

DOS: Facultar al Alcalde para la firma del convenio y cuantos documentos sean necesarios para su entrada en vigor.

TRES: Proceder a la notificación del acuerdo.

CONVENIO DE ENCOMIENDA DE GESTION ENTRE LOS AYUNTAMIENTOS DE ELGOIBAR, SORALUZE, MENDARO, DEBA Y MUTRIKU PARA LA EJECUCIÓN DE LOS PROYECTOS DE IMPULSO DEL EMPLEO Y DESARROLLO LOCAL SUBVENCIONADOS POR LANBIDE-SERVICIO VASCO DE EMPLEO, AL ÁMBITO TERRITORIAL DE DEBABARRENA

REUNIDOS

De una parte, la Sra. ANE BEITIA ARRIOLA en su condición de Alcaldesa Presidenta del Ayuntamiento de Elgoibar y en representación legal del mismo, autorizada expresamente para este acto por acuerdo del Pleno de la Corporación de -----

Y de otra parte, el Sr. IKER ALDAZABAL BASAURI en su condición de Alcalde Presidente del Ayuntamiento de Sorluze y en representación legal del mismo, autorizado expresamente para este acto por acuerdo del Pleno de la Corporación de -----

Y de otra parte, la Sr. IÑAKI ARREGUI URIA, en su condición de Alcaldesa Presidenta del Ayuntamiento de Mendaro y en



Cod.Expediente:
2022UDAL0007

SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

ordezkaria ----- Udaltzarraren Osoko Bilkurak hartu zuen akordioaren bitartez, egintza honetarako berariaz baimenduta dagoena.

Eta beste alde batetik, GILEN GARCIA BOYRA JAUNA, Debako Udaleko Alkate-Lehendakaria eta Debako Udalaren lege-ordezkaria, ----- Udaltzarraren Osoko Bilkurak hartu zuen akordioaren bitartez, egintza honetarako berariaz baimenduta dagoena.

Eta beste alde batetik, JOSE IGNACIO PALENZUELA ARRIETA JAUNA, Mutrikuko Udaleko Alkate-Lehendakaria eta Mutrikuko Udalaren lege-ordezkaria, ordezkaria ----- Udaltzarraren Osoko Bilkurak hartu zuen akordioaren bitartez, egintza honetarako berariaz baimenduta dagoena.

JARDUN DUTE

Horiek guztiek euren karguek dituzten berariazko funtzioak betetzeko. Eta elkarri aitortu diote Hitzarmen hau sinatzeko gaitasun osoa dutela. Horiek horrela, honako hau

ADIERAZI DUTE

LEHENENGOA. 2022ko maiatzaren 20ko EHAAn, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuen Zuzendari Nagusiak 2022ko maiatzaren 13an eman zuen Ebazpena argitaratu zen. Horren bidez argitaratzen da enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2022ko ekitaldiko laguntzen deialdia.

BIGARRENA. Deialdiaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeei laguntzak ematea da, jardueraren xede den lurraldearen garapen sozioekonomikoa bultzatzeko eta modernizatzeko asotan, enplegua sortzeko proiektuak martxan jartzeko, horien bidez Euskadiko eskualde guztietan modu orekatuan enplegu-aukerak sortzeko, 2022rako Enpleguaren Euskal Estrategiarekin eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioarekin bat etorritik.

Deialdi honekin lortu nahi den azken helburua da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena eman duten langabeen enplegarritasuna hobetzea.

representación legal del mismo, autorizada expresamente para este acto por acuerdo del Pleno de la Corporación de -----

Y de otra parte, el Sr. GILEN GARCIA BOYRA, en su condición de Alcalde Presidente del Ayuntamiento de Deba y en representación legal del mismo, autorizado expresamente para este acto por acuerdo del Pleno de la Corporación del -----

Y de otra parte, el Sr. JOSE IGNACIO PALENZUELA ARRIETA, en su condición de Alcalde Presidente del Ayuntamiento de Mutriku y en representación legal del mismo, autorizado expresamente para este acto por acuerdo del Pleno de la Corporación de -----

INTERVIENEN

Todos ellos en el ejercicio de las funciones propias de sus cargos, reconociéndose mutua y plena capacidad para el otorgamiento del presente Convenio, y al efecto,

EXPONEN

PRIMERO. Que con fecha de 20 de mayo de 2022 se publica en el BOPV la Resolución de 13 de mayo de 2022 de la Directora General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por la que se procede a la publicación de la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo para el ejercicio 2022.

SEGUNDO. Que el objeto de esta convocatoria es la concesión de ayudas a las entidades locales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con el propósito de poner en marcha proyectos dirigidos a la creación de empleo, que repercutan en el desarrollo socioeconómico y modernización del territorio objeto de actuación y permitan ofrecer oportunidades de empleo de forma equilibrada en todas las comarcas de Euskadi, en coherencia con la Estrategia Vasca de Empleo 2022 y con el principio de igualdad de mujeres y hombres.

El objetivo final que se persigue con la presente convocatoria es mejorar la empleabilidad de las personas desempleadas inscritas en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

TERCERO. Que en dicha Resolución de 13 de mayo de 2022 se establece que podrán ser

HIRUGARRENA. 2022ko maiatzaren 13ko ebazpenean eratzten da deialdi honi loturiko diru-laguntzen onuradun izan daitezke honako erakunde hauek:

a) 1. eta 2. motetako jarduerak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko mankomunitateak, kuadrillak, udalerrri taldeak edo udalerrriak, azken hauek beren izenean, hiru Lurralde Historikoetako hiriburuen kasuan, eta 2.2 artikulua b) atalean aurreikusitako kasuan.

Nortasun juridikorik ez duten udalerrri taldeak direnean, diruz lagundutako proiekturen bat gauzatzeko konpromisoa hartzen duten udalerrriak izango dira onuradun. Kasu guztietan, taldeko ahalduen bat izendatu beharko dute, eta onuraduna den aldetik taldeari dagozkion betebeharrak betetzeko behar adina ahalorde emango dizkiote ahaldu horri.

b) Hirugarren motako jarduketan kasuan, aurreko letran adierazitako entitateez gain, proiektua bakarka aurkeztu duten udalerrriak ere izan daitezke onuradun.

c) 4. motako jardueren kasuan, tokiko enpresa pribatuek ere jaso ahal izango dituzte diru-laguntzak. Proiektua sustatzen duen tokiko erakundearen lurralde-esparruan lantokia eta jarduera ekonomikoa duten izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoak hartuko dira tokiko enpresatzat, beti ere, 2. artikulua 7.4.4 atalean adierazitako baldintzak betetzen badituzte.

LAUGARRENA. 2022ko maiatzaren 13ko Ebazpenaren II. ERANSKINEAN diruz lagungarria den gehieneko aurrekontua ezartzen da eskualde bakoitzarentzat. Hala, Debabarreneko Eskualdeari dagokionean, 441.182 euroko aurrekontua izendatzen da eskualde osoarentzat, 1 motako jarduerak egiteko. eta 253.186 euroko diru-laguntza izendatzen zaio Eibarri.

BOSGARRENA. Eskualdeko Enplegu Planen deialdi horri jarraiki, Debabarreneko lurralde eremuko partaide gisa ageri direnak ondorengo udalak dira: Deba, Mutriku, Mendaro, Elgoibar, Eibar eta Soralue-Placencia de las Armas.

beneficiarias de las ayudas previstas en esta convocatoria, las siguientes entidades:

a) Para el desarrollo de actuaciones de los Tipos 1 y 2, las Mancomunidades, Cuadrillas, agrupaciones de Municipios o Municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, estos últimos en su propio nombre, en el caso de las capitales de los tres Territorios Históricos y en el supuesto previsto en el apartado b) del artículo 2.2.

Cuando se trate de una agrupación de municipios sin personalidad jurídica, cada uno de los municipios agrupados que se comprometa a ejecutar alguno de los proyectos subvencionados, tendrá la condición de beneficiario. En cualquier caso, deberán nombrar un representante, con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que, como beneficiario, corresponden a la agrupación.

b) En el supuesto de actuaciones del Tipo 3, podrán ser beneficiarias además de las mismas entidades señaladas en el apartado anterior, los municipios que individualmente presenten el proyecto.

c) En el supuesto de actuaciones del Tipo 4, podrán ser beneficiarias de la subvención las empresas privadas locales, entendiendo como tales personas físicas o jurídicas, de naturaleza privada, con centro de trabajo y actividad económica en el ámbito territorial de la entidad local que promueve el proyecto y que cumplan los requisitos del apartado 7.4.4 del artículo 2.

CUARTO. Que en la Resolución del 13 de mayo de 2022 en el ANEXO II se establece un presupuesto máximo subvencionable para cada comarca, y que en el caso de la Comarca del Bajo Deba asciende a: 441.182€ para el conjunto de la comarca, para las actuaciones tipo 1 y de 253.186€ para Eibar.

QUINTO. Que los municipios incluidos como pertenecientes al ámbito territorial de Debabarrena, en base a la citada convocatoria de Planes de Empleo Comarcales, son los siguientes: Deba, Mutriku, Mendaro, Elgoibar, Eibar y Soralue-Placencia de las Armas.

Sin embargo, hay que tener en cuenta que el municipio de EIBAR no participa en este convenio, acogiéndose al artículo 2.2.b, en el



Cod.Expediente:
2022UDAL0007

SORALUZKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

Ido horretatik kontuan izan behar da, 2.2.b artikulua oinarritzat hartuta, EIBARKO udalerriak ez duela hitzarmen honetan parte hartzen; izan ere, bertan ondokoa jasotzen da: "Salbuespen gisa, ondorengo kasuetan, tokiko proiektuak diruz lagundu ahal izango dira, eskualde izaera alde batera utzita

b) Proiektuak, 2021eko martxoaren 31n, 24.000 biztanletik gorako populazioa duten udalerriei dagozkienean.

SEIGARRENA. Hitzarmen hau Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusiak 2022ko maiatzaren 13an eman zuen Ebazpenaren jasota dauden tokiko enpleguari buruzko proiektuak, hain zuzen, 1. MOTAKO bailarako proiektuei dagozkieanak, gestionatzeko formalizatuko da.

ZAZPIGARRENA. Hala, 1. Motako ekintzetarako, 7. artikuluan ezartzen denez, eskaera nortasun juridikorik gabeko udalerri talderen batek aurkeztu behar izanez gero, eskaera, ahalorde nahikoa izango duen ordezkari batek egingo du, onuradun gisa, taldeari dagozkion betebeharrak, udalerri horien esparruaren baitan adostu behar direnak, betetzeko.

ZORTZIGARRENA. Laguntza eskaera aurkeztu ahal izateko, bada, Debabarreneko eskualdean sartuta dauden gainerako udalen ordezkariak Elgoibarko Alkatearen esku uzteko akordioa hartu zen DEBEGESAREN, Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkarteak, SAREN, Administrazio Kontseiluan, 2012ko azaroaren 29an (158 zenbakidun akta).

BEDERATZIGARRENA Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusiak 2022ko irailaren 19an eman zuen Ebazpenean, Elgoibarko Udalarentzat 185.799,88€ gehieneko diru-laguntza ematea onartu zen, enplegua eta tokiko garapena sustatzeko 1. motako proiektuak, Eranskinean jasota daudenak, egiteko.

HAMARGARRENA. Ebazpen haren ERANSKINEAN ere, onartutako proiektu bakoitzari dagozkion zenbatekoak ezartzen dira.

Horregatik guztiagatik, Elgoibarko Udalak eta Soraluze, Mendaroko, Debako eta Mutrikuko Udalek honako hitzarmen hau sinatzen dute, ondorengo baldintzei jarraiki.

BALDINTZAK

que se recoge que "Excepcionalmente, se podrán subvencionar proyectos locales prescindiendo del carácter comarca en los siguientes supuestos:

b) Cuando los proyectos se refieran a municipios con una población superior a 24.000 habitantes, a 31 de marzo de 2021".

SEXTO. Que el presente Convenio se formaliza para la gestión de los proyectos locales de empleo aprobados en la Resolución del Director General de Lanbide- Servicio Vasco de Empleo, de 13 de mayo de 2022, y que corresponden a los proyectos comarcales del TIPO 1

SEPTIMO. Que en el artículo 7 se establecía que, para las actuaciones del Tipos 1 la solicitud deberá ser presentada, en el caso de una agrupación de municipios sin personalidad jurídica, por un representante con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que, como beneficiario, corresponden a la agrupación, y que deberán haber sido consensuados en el ámbito de las mismas.

OCTAVO Que el acuerdo para asumir la representación del resto de los ayuntamientos encuadrados en ámbito territorial de Deba Behera/Bajo Deba, por parte de la Alcaldesa de Elgoibar, de cara a presentar la solicitud de ayudas, se tomó en el Consejo de Administración de DEBEGESA (Sociedad para el desarrollo económico del Bajo Deba, S.A.) de fecha 29 de noviembre de 2012 (acta nº 158).

NOVENO. Que en la Resolución de la Directora General de Lanbide- Servicio Vasco de Empleo, de 19 de septiembre de 2022, se aprueba la concesión al Ayuntamiento de Elgoibar de una subvención máxima de 185.799,88€ para la realización de los proyectos locales de empleo para la tipología 1 que se relacionan en el Anexo adjunto.

DECIMO. Que en el ANEXO de dicha resolución, se establecen también las cuantías correspondientes a cada proyecto aprobado.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Elgoibar y los Ayuntamientos de Soraluze, Mendara, Deba y Mutriku, suscriben el presente convenio con arreglo a las siguientes

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Constituye el objeto del presente convenio el establecer las condiciones de la encomienda de gestión para la gestión

LEHENENGOA. Hitzarmen honen xedea da Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zuzendari Nagusiak 2022ko irailaren 19an eman zuen Ebazpenean, enplegua sustatzeko 1. motatako proiektuak gestionatzeko eta diruz lagundutako zenbatekoa gestionatzeko ardura ematea. Diru-laguntza horren gehienezko zenbatekoa 185.799,88 eurokoa da.

BIGARRENA.- Onartu diren ekintzak, hau da, Elgoibarko Udalak kudeatuko dituenak ondorengoak dira:

1. MOTA.- Enplegu sustapena Tipo 1

administrativa y financiera de los proyectos de empleo del Tipo 1 aprobados en la Resolución del Director General de Lanbide- Servicio Vasco de Empleo, 19 de septiembre de 2022, así como de la cantidad subvencionada correspondiente, que asciende a un máximo de 185.799,88€.

SEGUNDA.- Las acciones aprobadas que va a gestionar el Ayuntamiento de Elgoibar son las siguientes:

PROIEKTUAREN IZENA Nombre del proyecto	UDALA AYUNTAMIENTO	TIP O	KONTRAT U KOPURUA Nº contratos	%LANALDI A % jornada	IRAUPENA (hilebeteak) Duración (meses)	DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA (€) Importe subvención
1 HERRIGUNE HISTORIKOKO KALEAK SUSPERTZEA, LOKAL HUTSEI BIZIA EMANEZ REVITALIZAR LAS CALLES DEL CASCO HISTÓRICO DANDO VIDA A LOCALES VACÍOS	Elgoibar	1	1	100	4	11.883,24€
2 HIRI-BALIOA HANDITZEA REVALORIZACIÓN URBANA	Elgoibar	1	4	100	4	49.090,14€
3 KULTURA BATZORDEAREN ETA HERRITAREN ARTEKO KOMUNIKAZIOA HOBETZEA MEJORAR LA COMUNICACIÓN ENTRE LA COMISIÓN DE CULTURA Y LA CIUDADANÍA.	Elgoibar	1	1	100	4	11.883,24€
4 MUSKIRITZUKO MENDILERROAREN HOBEKUNTZARAKO PLANA PLAN DE MEJORA DE LA SIERRA DE MUSKIRITZU	Soraluze	1	1	50	6	12.500,00€
5 HIRI-GUNEKO ZOLADURAK ETA BARANDAK BERRITZEA RENOVACIÓN DE PAVIMENTOS Y BARANDILLAS DEL ÁREA URBANA	Soraluze	1	2	75	6	25.000,00€
6 GIZARTE ZERBITZUETAKO ARTXIBOAK ETA ITZIARKO INDUSTRIALDEKO ARTXIBO HISTORIKOA INFORMATIZATZEA INFORMATIZACIÓN DE ARCHIVOS DE SERVICIOS SOCIALES Y DEL ARCHIVO HISTORICO DEL POLIGONO INDUSTRIAL DE ITZIAR.	Deba	1	1	86	4,5	12.500,00€
7 UDALERRIKO KOSTALDEKO PERIMETROAN ETA LANDAAUZOETAN HIRI-ALTZARIAK ALDATZEKO ETA KONPONTZEKO PROIEKTUA PROYECTO DE MODIFICACIÓN Y REPARACIÓN DE MOBILIARIO URBANO EN EL PERÍMETRO Y BARRIOS COSTEROS DEL MUNICIPIO.	Deba	1	2	100	3	16.367,26€
9 HERRIA DOTORETZE ARREGLOS MUNICIPALES	Mutriku	1	3	100	4	34.076,00€



Cod.Expediente:
2022UDAL0007

SORALUZEKO UDALA AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

1. MOTAKO ekintzak.- Enplegua sustatzea

Enplegua sustatzeko ekintzat hartzen dira ez-ohiko merkatuan egiten diren kontratazioak, baldin eta haien helburua lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegarritasuna handitzea bada, beren kualifikazioa, gaitasun pertsonalak edo motibazioa sustatuko dituen aldi baterako lan-esperientzia baten bitartez.

Esandako kontratazioak tokian-tokian sustatuko dira, eta toki-erakundeek edo haien mendeko erakundeek egingo dituzte zuzenean; bestela, zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzen eta laneratzen diharduten enpresek, enplegu-zentro bereziek eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek, beti ere Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen erroldan izena emanda badaude (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean arautzen da), eta haiekin proiektua gauzatzeko hitzartzen bada edota proiektua kontratu bidez haiei esleitzen bazaie.

Hirugarrenekin hitzartutako jarduera, % 100erainokoa izan ahalko dena, diru-laguntzaren zenbatekoaren ehuneko 20tik gorakoa bada eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Laneratzea Aktibatze Zuzendaritzak baimendu egin beharko du aurreko paragrafoan aipatutako hitzarmena edo kontratua, berau izenpetu aurretik.

Edonola ere, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edo jarduera horretan organismo autonomoaren kolaboratzaile gisa diharduen erakundeak kudeatuko ditu enplegu-eskaintzak.

Mota horretako kontratazioek, edonola ere, 2022ko maiatzaren 20ko EHAA, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zuzendari Nagusiak 2022ko maiatzaren 13an eman zuen Diru-laguntzak eskatzeko Deialdiaren Ebazpenaren 2. Artikuluaren 4.1.2. puntuan jasotzen diren betekizunak bete beharko dituzte.

HIRUGARRENA.- Hitzarmena sinatzen duten Udal guztiek Elgoibarko Udalarari mandatua ematen diote, berari dagozkion ekintzak era egokian burutzeko beharrezkoa den gestioaz arduratzeko, eta ekintza horiek gauzatzeko, legez beharrezkoak diren tramiteak egiteko.

TIPO 1. Fomento del empleo

Se entiende por actuaciones de fomento del empleo las contrataciones realizadas en el mercado no ordinario que tengan por objeto aumentar la empleabilidad de personas con dificultades especiales de inserción laboral a través de una experiencia temporal de trabajo que potencie su cualificación y/o sus competencias personales y motivación.

Dichas contrataciones serán promovidas desde el ámbito local y se realizarán bien directamente por las entidades locales, incluidas las entidades dependientes de las mismas o bien a través de empresas de inserción, centros especiales de empleo, o entidades sin ánimo de lucro dedicadas a la integración socio-laboral de personas con especiales dificultades que se encuentren inscritas en el censo de organizaciones del tercer sector social de Euskadi (regulado en la Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi), con las que se acuerde mediante convenio o a las que se adjudique por contrato la ejecución de los proyectos.

